

batzuek ere adierazi dizkigu, agian orainarteraño entzuten ez diranak.

III.—Urkijo jaunak ekañi dizkigu euskal-itz batzuek. Burdiñolai dagozkienak dira. Arozena jaunak *Archivo*-etan idorotakoak omen dira.

IV. — Euskaltzaindiak eskeñak damazkio Jorje Bertolasso Stella jaunari, oraintxe argitaratu dituen bere bi liburuen eskeintzagatik. Liburu abek dira: *Vestigios da Lingua Primitiva* ta *A vida científica de Trombetti*.

V.—Euskaltzaindiak lan-batzaldi bat egin nai luke. Lanen gaia auxe izango da: *Método práctico para la enseñanza del euskera a los niños de las escuelas*, ta naiz gipuzkeraz naiz bizkaieraz idatzi diteke.

Lan aben epea datoñen urte 1935 -ko Otsailaren azken-egun arte izango da, ta Euskaltzaindiaren etxera biali bear dira *Ribera, 5, Bilbao*. Beste oarpi-deak beste batzaldietan bezela.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez bukatu da batzaraldi auxe.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1934 -ko Joñailaren 24 - an.

Euskaltzain jaun auek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta Ormaetxea urgazlea. Otoitiz egin da.

I.—Altube jaunak, Iztegia dala-ta, oarpen batzuek dakarzki. Lan au egiteko norbait berezi bear litzake. Euskaltzaindiak ontarako Joan Gorostiaga jauna aukeratu du.

II.— Ormaetxea jaunak bere lan bat irakurri digu:
Algunas formas pasivas.

III.— Eguskitza jaunak Leizaola jaunaren *Cate-*
cismotik jasotako itz asko dakarzki.

IV.— Aita Intzak eriz erri bildutako itzak irakurri
ditu.

V.— Iztegirako itz berriak sortzen edo apaintzen
jardun degu ta bigaramonerako beste gai batzuek
utzirik, oiturazko otoitzaz amaitu da.

Donostia, Eusko -Ikaskuntzaren gela nagusian, 1934 - ko Joñailaren 25 - an.

Batzar ontan jaun aukeratu dira: Azkue maipuru,
Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagrai, Altube, Intza,
Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta Ormaetxea urgaz-
lea. Otoitzez asi da.

I.— Elissalde jaunak Zuberoako euskal-somaketa
(*adivanzas*) batzuek esan dizkigu.

II.— Lakonbe jaunak Rouen-en dauden eskutitzak
irakurri dizkigu.

III.— Aita Intzak itz berri batzuen gaia Iztegirako
dakar. *Melodía - Mística* zelan esan litezken. Ez da
ezer erabaki.

IV.— Azkue jaunak bere *Gipuzkera osotua* irakurri
digu. Irakurri-ta, gerorako beste zerbait utzi du.

V.— Urkijo jaunak, Bähr jaunak bidali dion idazki
bat irakurri digu: *El vasco y el camifico.*

VI.— Itz-berriak Iztegirako.

VII.— Azkue jaunak bere *Gipuzkera osotua* ira-
kurtzen jaraitu du eta otoitzez amaitu da batzaraldia.